

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/34/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei (GEEH) buruzko 2002/96/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/34/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 por la que se modifica la Directiva 2002/96/CE sobre residuos de aparatos eléctricos y electrónicos (RAEE), por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/65, 2008/3/20koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/34/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

**gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei (GEEH) buruzko 2002/96/EE Zuzentaraua aldatzen duena,
Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuko 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura betez,

alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2002/96/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak ⁽³⁾ xedatzen du, zein diren 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu beharreko neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak ⁽⁴⁾ berari dagozkion betearazte-eskumenez baliatzeko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoan, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zein neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura barneratzen zen. Zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatuz edo, egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatuz.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen duen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, eranskinak egokitu eta betetze-ikuskatzearen arauak har ditzan. Neurri horiek orokorrak eta 2002/96/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen duen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(1) C 161 EO, 2007.07.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailaren 11koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak hartutako Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 37 EO, 2003.02.13koa, 24. or. Zuzentaru hori honek aldatu zuen: 2003/108/EE Zuzentarauak (L 345 EO, 2003.12.31koa, 106. or.).

(4) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11 or.).

(5) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(5) Batzordeak 2002/96/EE Zuzentarauko 7. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren garapen-arauak ezarri dituela kontuan hartuz, 2005/369/EE ⁽⁶⁾ Erabakien bidez, 2004ko abuztuaren 13ko epea aipatzen duen erreferentzia ezabatu egin behar da.

(6) Horrenbestez, aipatutako 2002/96/EE Zuzentaraia aldatu egin behar da.

(7) Zuzentaraia honen bitartez 2002/96/EE Zuzentaraian egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, ez dira, ezinbestez, Estatu kideen eskutik barneratu behar. Ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2002/96/EE Zuzentaraiak aldaketa hauek izango ditu:

1) 6. artikuluko 1. paragrafoan, bigarren lerrokadaren ordeztatu hau jarriko da:

«II. eranskina aldatu ahal izango da, gutxienez, gizakien osasunaren eta ingurumenaren adinako babes-maila bermatuko duten trataera-teknologiak barneratzeko. Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 14. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

2) 7. artikuluko 3. paragrafoan, bigarren lerrokadaren ordeztatu hau jarriko da:

«Estatu kideek 2. paragrafoan finkatutako helburuak betetzeko jarraitu beharreko garapen-arauak ezarriko dira, materialentzako zehaztapenak barne. Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraia bera ere osatuz) 14. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

3) 13. artikuluan, ordeztatu hau jarriko da:

«13. artikulua

Aurrerapen teknikora eta zientifikora egokitzea

7. artikuluko 3. paragrafoa, I B eranskina (bereziki, etxebizitzetan behin-behineko argiak, harizpidun bonbillak eta ekoizkin fotovoltaikoak, esate baterako, eguzki-panelak sartzeko asmoz), II. eranskina (bereziki, GEEHak tratatzeko aurrerapen tekniko berriak kontuan hartuz) eta III. eta IV. eranskinak aurrerapen zientifikora eta teknikora egokitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak gauzatuko dira. Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 14. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

Eranskinak egokitu aurretik, Batzordeak gailu elektriko eta elektronikoen ekoizleak, birziklatzearen arduradunak nahiz trataeraz arduratzen diren agenteak, ingurumena babesteko erakundeak, sindikatuak eta kontsumitzaileen elkarteak kontsultatuko ditu, beste batzuen artean.».

(6) 2005eko maiatzaren 3ko Batzordearen 2005/369/EE Erabakia, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/96/EE Zuzentaraian arabera, Estatu kideek haiek betetzen dituztela kontrolatzeko arauak zehazten dituen eta datuei buruzko formatuak ezartzen dituen (L 119 EO, 2005.05.11koa, 13. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4) 14. artikuluan, 3. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.».

5) II. eranskinean, 4. puntuaren ordez testu hau jarriko da:

«4. 14. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki, Batzordeak lehentasuna emango dio kristal likidozko telefono mugikorretan eta pantailetan txertatutako zirkuitu-txartelei dagozkien hitz-tarteak egokitu behar diren ala ez ebaluatzeari.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidentea J. LENARCIC